

AUTOEBALAKETA III ATALA

Aukeratu erantzun zuzena. Galdera bakoitzean aukera zuzen bakarra dago.

1. AIEEen baieztapen zuzena aukeratu:

- a. Ekintza analgesiko potentea dutenez, erabilgarriak dira min larrien tratamenduan
- b. Dosi altuekin, aspirina ibuprofenoa baino eraginkorragoa da mina arintzeko
- c. Eragin antiinflamatorioa lortzeko behar diren AIEEen dosiak txikiagoak dira eragin analgesikoa lortzekoak baino
- d. Inflamazio akutuan eraginkorragoak dira gaixotasun inflamatorio kronikoetan baino
- e. Beti preskribatu behar dira protoi ponparen inhibitzaile batekin urdal-hesteko kalteak saihesteko

2. Ondoko analgesikoen artean, bat urdaileko arazorik EZ sortzeagatik nabarmentzen da, zein?

- a. Ibuprofenoa
- b. Parazetamola
- c. Az. Azetilsalizilikoa
- d. Diklofenakoa
- e. Dexketoprofenoa

3. Dipironari buruzko esaldi hauen artean bat okerra da:

- a. Analgesikoa da
- b. Kalte hematologikoak sortu ditzake
- c. Sukarkontrakoa da
- d. Bide parenteraletik zein aho bidetik administratu daiteke
- e. Antiinflamatorioa da

4. Odontologian infekzio bakterianoen tratamendu farmakologikoari buruzko esaldi okerra aukeratu:

- a. Infekzio odontogenikoen aukerako tratamendua amoxicilina edo amoxicilina + az.klabulanikoa dira
- b. Lehen aukerako farmakoa profilaxi antibiotikoan eritromizina da
- c. Antibiotikoekin elkarrekintzak ematen ohi dituzten farmako batzuk antikoagulatzaileak eta aho bideko antisorgailuak dira
- d. Klindamizinarene ondorioz kolitis pseudomenbranoa ager daiteke
- e. Doxiziklina ez da haurdunaldian eman behar



- 5. Odontologian antifungikoen preskripzioari buruz:**
- Miconazol antifungiko azolikoa kasu kandidiasi orofazial kasu larrietan ematen da aho-bidetik
 - Nistatina topikoki erabilgarria da ordezeko hortzek eragindako estomatitisaren tratamendurako
 - Flukonazola topikoki gel moduan ematen da eta aho-mukosan atzekitxe ona dauka
 - Tratamenduen iraupena ezin da 7 egun baino gehiagoz luzatu
 - Aurreko guztiak oker daude
- 6. Klorhexidina:**
- Itsaskortazun indize txikidun antiseptikoa da
 - Aho-irakuzketan % 2 erabiltzen da
 - Topikoki zein sistemikoki eman daiteke
 - Eraginkorra izateko epe luzeetan aplikatu behar da
 - Indikazioen artean afta eta ultzeren tratamendua dago
- 7. Gingibitis ultzeratiba nekrozatzaile akutuaren tratamendu farmakologikoa:**
- Metronidazol
 - Azitromizina
 - Flukonazol
 - Doxiziklina
 - Aziklobir
- 8. Prozedura odontologiko labur baten sedazio behar bada, ze farmako aukeratuko zenuke?**
- Triazolam
 - Diazepam
 - Midazolam
 - Lormetazepam
 - Clobazam
- 9. Aukeratu baieztapen okerra anestesiko lokalarekin batera emandako hodi-uzkurtzaileei buruz:**
- Anestesikoaren eragina luzatzen du
 - Potentzia anestesikoa handitzen du
 - Anestesikoaren toxikotasuna murrizten du
 - Kartutxoan, hodi-uzkurtzailearen kantitatea portzentaian (%) adierazten da



- e. Fenilpresina haukerako hodi-uzkurtzailea da gaixotasun kardiobaskularra duten pazienteetan

10. Anestesiko lokalen preskripzioa. Aukeratu baieztapen zuzena:

- a. Lidokaina (%1) + adrenalina (1:100.000) gel moduan topikoki ematen da ultzeren tratamendurako
- b. Lidokaina (%2) + fenilpresina (1:50.000) hemostatiko moduan erabilgarria da
- c. Lidokaina (%2) + adrenalina (1:50.000) erabilgarria da lidokaina estandarrekin egindako anestesia infiltratiboaren errefortzu bezala
- d. Artikaina 0,4%eko kontzentrazioan aurkezten den bakarra da
- e. Bupibakainak eraginaren hasiera geldoagoa eta iraupen laburragoa dauka beste anestesikoen baino, horregatik gutxi erabiltzen da odontologian

